


**BIZITEGI ERAIKINAK  
B MAILA****RAMÓN MARÍA LILI PASEALEKUA 1**

Frantzisko Urkola, 1921.

**Deskribapena**

Eraikinaren neurri handiak, bi etxe kantoi egiten baititu, eraikuntzaren kalitatea, eta Urumea ibaiaren bokalean duen kokapena dira hirigintzaren mailan garrantzi handieneko alderdiak. Eraikinak beheko solairua du, proiektu originaleko goiko beste sei solairu, eta geroago erantsitako zazpigarren solairua, teilatupekoan, 1 zk.ko atarian. Bosgarren solairua fatxadako beste alderdietatik bereiztea nabarmentzen da; izan ere, eratzen duen erliebean zutabe-erdiak eta balaustrada eta guztiko balkoi hegaldunak dauzka. Atikoko karelak ordena horri segitzen dio idulki eta balaustre arteko txandaketan. Era berean, atzeraemana den seigarren solairuak silueta apaindu bat du koroa, eta dorre karratuak indarra ematen diete kantoiei. Fatxadako plano nagusietan hiruzuloka antolatzen dira hutsuneak eta metalezko balkoiak, baoak txandakatu egiten dira eta horretan. Beste elementu batzuk ere nabarmentzen dira, hala nola begiratokietako mainelak eta atari sarrerak. Atariak eta eskailerak kalitatezko antolaera eta eraikuntza daukate.

**B mailako babes erregimen espezifikoa**

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: arotzeria.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlandua eta apaindura emokatuak.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa bereziak: esku hartze unitatea Ramón María Lili Pasealekua 02rekin. Ataria eta eskailera aldaketarik gabe gordeko dira, jatorrizko elementu guztiekin batera.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: beheko solairuko bao originalak, pertsiana tolesgarriak. Eta beheko solairuko fatxada mailan gainjarritako elementuak kentzea.